


2008an Euskal AEko Herri administrazioek 805 milioi euroko superabita izan zuten

Estatuaren administrazioak 1.563 milioiko superabita izan zuen Euskal AEn; Euskal administrazioek 758 milioiko defizita.

Euskal AEko herri administrazioak (euskal administrazioak, estatuarena eta Gizarte segurantzak): superabita 805 milioikoa izan zen 2008an; hori, nazio-kontabilitatean BPGren %1,2 da, Eustaten datuen arabera. Aurreko urtearen aldean, %75eko murrizketa da balio absolutuetan eta BPGren ehuneko 3,6 puntukoa.

1- grafikoa: herri administrazioen finantza-gaitasunaren (+) edo finantza-beharraren (-) bilakaera (BPGren %)



Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen kontu ekonomikoak
EUROSTAT

Bilakaera negatibo hau areagokoa izan da estatuaren osotasunean, non herri administrazioen sektorea 2007ko %1,9ko superabitetik 2008ko %4,1eko defizitera joan den, BPGren terminoetan. 27-EBn saldo negatiboak okerrera egin du: 2007ko BPGren %0,8ko defizitetik 2008ko %2,3ra.

Euskal AEko herri administrazioen finantza-gaitasunaren murrizketa ez-finantzetako baliabideen bilakaera negatiboari zor zaio –zeinak %0,4 murriztu baitziren 2007aren aldean- eta ez-finantzetako enpleguen hazkunderari –zeinak %10,5 hazi baitziren.

Erakundeak aztertuz gero, Euskal AEko Estatuaren administrazioaren superabita handitu egin zen 2007aren aldean, 1.561 milioitik 2008ko 1.685etara. Gizarte Segurantzak, berriz, Euskal AEn 2007ko 186 milioiko superabitetik 2008ko 122ko defizitera pasatu zen.

Euskal administrazioetan, denetan egin zuen okerrera saldoak: Bizkaiko foru eta udal administrazioak 164 milioiko superabita izan zuen 2008an; 2007an baino %71 gutxiago. Gainerakoetan 2007ko superabitetik 2008ko defizitera pasatu da; Araban 122 milioiko defizita, Gipuzkoan 15ekoa eta Eusko Jaurlaritzan 785 milioikoa.

1. taula: Euskal AEko herri administrazioen aurrezki garbia eta finantza-gaitasuna (+) edo finantza-beharra (-) 2008 (milaka euro)

	1.- Finantzazkoak ez diren baliabideak	2.- Finantzazkoak ez diren erabilerak	3.- Aurrezki garbia	4.- Finantzatzeko ahal. (+) eta beh. (-)
Herri administrazioak	24.806.687	24.001.693	3.269.761	804.994
EAEn dauden Estatuko administrazioa + Gizarte Segurantzak	10.767.250	9.204.315	1.908.914	1.562.936
EAEn dagoen Estatuko administrazioa	3.377.743	1.692.920	1.991.319	1.684.823
EAEn dagoen Gizarte Segurantzak (**)	7.610.642	7.732.529	-82.405	-121.887
EAEko administrazioak (*)	16.662.372	17.420.314	1.360.847	-757.942
Eusko Jaurlaritza	8.961.775	9.746.713	234.166	-784.939
Araba	2.634.599	2.756.406	91.313	-121.807
Bizkaia	8.501.123	8.337.259	675.917	163.864
Gipuzkoa	5.143.229	5.158.290	359.451	-15.060

(*) Eusko Jaurlaritzaren barruan honakoak sartzen dira: adm. erak. autonomoak, EHU, Osakidetza era sozietate publiko batzuk. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren barruan honakoak sartzen dira: foru aldundiak eta horien adm. erak. autonomoak era sozietate publiko batzuk; eta Toki erakundeak

(**) Gizarte Segurantzaren barruan daude: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala, Itsasoko Gizarte Institutua, INEM-Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoa, LI mutuak, LG eta Soldadak Bermatzeko Fondoa (FOGASA).

Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen kontu ekonomikoak

2. taula: Herri administrazioen parte-hartzea azken eskarian Euskal AE (milaka euro) 2004-2008

	2004	%	2005	%	2006	%	2007	%	2008	%
Azken kontsumoko gastua	40.519.702	100,0	43.691.686	100,0	47.139.691	100,0	50.415.485	100,0	52.140.893	100,0
Herri adm.en azken kontsumoko gastua	8.004.388	19,8	8.475.920	19,4	9.131.861	19,4	9.995.041	19,8	10.978.096	21,1
Kapital-eraketa gordina	15.040.639	100,0	16.422.809	100,0	17.993.556	100,0	19.457.387	100,0	19.818.678	100,0
Herri adm.en kapital-eraketa gordina	1.493.468	9,9	1.506.473	9,2	1.656.706	9,2	1.880.579	9,6	2.065.866	10,4
Barne-eskaria	55.560.341	100,0	60.114.495	100,0	65.133.247	100,0	69.872.872	100,0	71.959.471	100,0
Barne-eskari publikoa	9.497.856	17,1	9.982.393	16,6	10.788.567	16,6	11.875.403	17,0	13.043.962	18,1

Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen kontu ekonomikoak

Barne eskari publikoaren parte-hartzea barne eskari guztian handitu egin zen 2007aren aldean; %18,1ean da.

Herri administrazioen parte-hartzeak azken kontsumoaren gastuan haziz darrai ere; 2008an Euskal AEko azken kontsumoaren gastuaren %21,1 izan zen, eta 2007an %19,8 izan zen.

Euskal AEko ekonomiaren osotasunean, herri administrazioen pisua Kapital eraketa gordinean 8 hamarrenez hazi da; %9,6tik 2008ko %10,4ra. Inbertsioen %94,5 euskal administrazioek egin zuten, eta gainerako %5,5 erkidegoko administrazio zentralak.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Clara Ramos Hernández

Tel:+34-945-01 75 97 Faxe:+34-945-01 75 01

Herri administrazioen kontu ekonomikoen gaineko prentsa-ohar gehiago

Herri administrazioen kontu ekonomikoen gaineko datu-bankua